



Ebazpena, 2019ko martxoaren 4koa, Hezkuntza sailburuordearena. Horren bidez, dei egiten zaie EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan. (IE4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak)

Hezkuntza Sailak onartu duen Heziberri 2020 planak hauxe du helburu: Europako esparruan, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan, 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horretan sartuta dago «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa», hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo nagusiak jasotzen dituen proiektua. Proiektu horrek paradigmaren aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza planteatzen du. Gaitasunen araberrako pedagogiaren ikuspegiaren ezaugarria hauxe da: eskuratutako ikaskuntzak egoera funtzional konplexuak konpontzera transferitzea, bideratzea eta konbinatzea.

Horrenbestez, oinarritzko gaitasunak hartuz lortzen da ikasleentzako definitutako irteerako profil orokorra, hau da, oinarritzko hezkuntzaren helburua. Oinarritzko kompetentzien artean, batzuk zeharkako edo generiko gisa definitzen dira: arazoak konpontzeko edo bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko behar dira. Beste batzuk, berriz, espezifikoak dira, diziplina-alor batekoak edo batzuetakoak. Oinarritzko zehar-kompetentzietako bat da komunikaziorako kompetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala).

Aipatutako komunikaziorako kompetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala) eskuratzeko, Hezkuntza Saila proiektuak eta esperientziak bultzatzen ari da unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, deialdi espezifikoen bidez zein zuzenean aldaketak sartzeko jarduerak proposatuta, irakaskuntza- edo antolakuntza-praktikak hobetuko dituztenak, eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko aukera emango dutenak.

Gizartean izandako aldaketak eta aurrerapenak eta gizartearen eskura jarri diren baliabide digitalak direla medio, gizarteak berak ohiko jarduera guztietan erabiltzen dituen bitarteko berriak hezkuntzaren alorrean ere sartu dira. Zenbait programaren bidez sartu dira pixkanaka ICTak gure ikastetxeetan, eta, une honetan, sare eta gailu digitalak erabiltzeak eragin beharko lukeen aldaketa pedagogikoa zein metodologikoa sustatzea da xedea. Baliabide digitalen erabilerak ikasketa-erritmo desberdinetara egokitzen laguntzen du, berdinen arteko ikasketa bultzatzen, ikasten ikasteko gaitasuna indartzen eta gelaren espazio fisiko eta denborazkoa zabaltzen ikasketarako ingurune birtual eta nonahikora. Horrez gain, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da, eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eduki analogikoen mende soilik zertan egon gabe. Horri guztiari bide emateko, beharrezkoa da irakasteko eta ikasteko prozesuan baliabide digitalen (baliabide metodologikoak eta tresnak) erabilera eta ezaguera pixkanaka hartzen joatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta Heziberri 2020-ren arabera ezartzen duen 236/2015 Dekretuak zuzeneko ehun bat erreferentzia egiten die eskumenei eta errealitate digitalari, sarreratik hasi «Oinarritzko Hezkuntza amaitu duen ikasleak kompetentzia digitala eta mediatikoa izan behar du, kompetentzia digitalaren arloko DIGCOMPen ildoan, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatzeko», komunikaziorako kompetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala) oinarritzko zehar-kompetentzietako bat bezala zehazten duen 7.2 artikulutik igaro, eta 30.4.h artikuluraino, non zehazten baita «irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan prestakuntza sustatzea, baliabide digitalen bidez». «Informazio eta Komunikazio Teknologiak txertatzea

irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan» kontzeptua zehaztasunez definitzeko erabiltzen da 12. artikulua guztia, bere lau atalekin.

Ikastetxeei bultzada eman nahi zaie zenbait proposamen pedagogiko esplora ditzaten eta garatzen jarrai dezaten, 174/2012 Dekretuan oinarrituta, eta 2017ko urriaren 16 ko aginduan irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duenaren eran. Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak zehazten du, eta titulartasun publiko nahiz pribatuko zentroetan aplikatzen da.

Gaitasun digitalen esparrua oso dinamikoa da; beraz, beste ikastetxeentzako hezkuntza-praktika ona osatzen duten ikastetxe bokazio berritzaileak bultzatu, lagundu eta ezagutzera emateko unea da orain, eta Sare_Hezkuntza izeneko lehendabiziko ikastetxe-sarea sortzeko, eta, horrela, sare horren bilakaera eredu bihurtzeko eta beste ikastetxe batzuei hobetzeko bideak erakutsi ahal izateko. Gaitasun digitalak garatzeko proiektuak zentzua izateko, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuen eta dagokion ibilbideko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko proiektuaren artean loturak egotea bultzatuko da.

Ikasketarako eta jakintzarako IKTak erabiltzeko, beharrezkoa da hezkuntza-baliabide digitalak bilatu, hautatu eta erabiltzea; dagokion ikasturteko programazio didaktikoko ikasketajarduerak egitea erraztuko duten baliabide digitalak, hain zuzen. Proiektu honek eskatzen du ikasleekin egiten diren hezkuntza-prozesuak aldatzea. Horretarako, ikasketarako eta jakintzarako teknologia digitalak jarriko dira ikastetxeen eskura, baliabide horiek erabil ditzaten. Eta horren osagarri, irakasleak prestatzeko zenbait jardura egingo dira, banaka zein taldean, teknologia horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskura ditzaten.

Horren guztiaren ondorioz, eta 193/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat harturik,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Deialdiaren helburua.

1.- Deialdi honen xedea EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei dei egitea da, «Sare_Hezkuntza Gelan» hezkuntza-berrikuntzako proiektuan parte har dezaten. Proiektuak helburu hauek ditu:

- Metodologia, teknologia, material berrien eta baliabide digitalen erabilera sustatzea ikasgelan, irakasteko eta ikasteko prozesuan.
- Irakasteko eta ikasteko prozesuan, material eta baliabide digitalak egitea eta horiek geletan erabiltzea bultzatzea. Materialak denon eskura izango dira, euskal hezkuntza-sistemaren barruan.
- Ikastetxeetan metodologia aldaketa gauzatzeko, prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa ematea.

2.- Helburu hori lortzeko, oro har, 2019-2020 ikasturtean 275.000 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura. Pertsonalean gutxi gorabeherako kostua 1.546.205,85 eurokoa da, lanaldi erdiko ordu-kreditua esleituta izateagatik, koordinazio, prestakuntza eta jarraipen lanak egiteko proiektuaren bi urteetan zehar.



3.- Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da.

2. artikulua.- Hartzaileak.

1.- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoek parte hartu ahal izango dute «Sare_Hezkuntza Gelan» hezkuntza berriztatzeko proiektuan, baldin eta 2019-2020 ikasturtean EAEn ari badira irakasten eta deialdi honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

2.- 2015-2016 ikasturtean eta ondorengoetan «Sare_Hezkuntza Gelan» programarako hautatu ziren ikastetxeak ezingo dira deialdi honetara aurkeztu.

3.- Gehienez ere 70 ikastetxe hautatuko dira (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoak).

4.- Gailu digitalak erosteko laguntzen (laster iragarriko dira) onuradun izan ahal izango dira hautatutako ikastetxe hauetako ikasleak, betiere beka baten onuradun izan badira unibertsitateaz kanpoko mailetakako ikasleak eskolatzeko beka eta ikasketa-laguntzen ebatzitako azken deialdian, eskola-materialetarako.

3. artikulua- Proiektuaren baldintzak eta edukia.

1.- «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuak bi urteko iraupena du. Hortaz, ikastetxeek parte hartzeko konpromisoa eta, ondorioz, hezkuntza digitalaren eredia dagokion zikloaren hasieratik amaierara arte eskaintzeko konpromisoa sinatu beharko dute, bai Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan. Hautatutako ikastetxe berriek eta «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuaren 2015-2016 ikasturteko eta ondorengoetako deialdietan hautatuak izan zirenek osatzen dute «Sare_Hezkuntza Gelan» Sarea, non eta Berrikuntzako Zuzendaritzak ez duen aurkako ebaluazioa ematen edo OOGk berak ez duen uko egiten.

2.- Proiektua partekatzen duten ibilbide berdineko lehen edo/eta bigarren hezkuntzako ikastetxeek lehentasuna izango dute.

3.- Heldutasun teknologiaren oinarriko mailan hasten diren ikastetxeak mailaz igo beharko dira deialdian parte hartu bitartean, eta dagokien IKT heldutasunaren ebaluazioan parte hartuko dute.

4.- Hautatutako ikastetxeetan proiektuan diharduten irakasleek, bestalde, parte hartu beharko dute dagokien berritzeguneak antolatzen duen Sare_Hezkuntza izeneko prestakuntzan eta/edo koordinazioan.

5.- Plan horretan parte hartzen duten ikastetxeek unitate didaktiko bat edo gehiago irakatsi behar dituzte modalitate digitalean arloetan edo ikasgaietan, hautatzen dituzten kurtsoetako talde guztietan, eta egiaztatu egin behar dute proiektua beren gain hartzeko eta irauten duen bi ikasturteetan normaltasunez beteko dutela bermatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak, ekipamendua eta irakasleak dituztela, azpiegitura berririk gehitu beharrik izan gabe.

6.- Heziberri 2020 Planaren esparruan Material Didaktikoen Programaren bidez (digitala edo paperekoa) finantzatutako Oinarriko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculum a egiteko material didaktikoen herena digitala izango da, gutxienez.



7.- Ikastetxeko irakasleen klaustroak eta OOGk onartu behar dute planean parte hartzea.

8.- Eskabidea egiten duten zentroek proiektu batean zehaztu behar dute «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan parte hartzeko egitasmoaren edukia, eta eskabidearekin batera aurkeztu behar dute proiektu hori, 8. artikuluan azaltzen da bertan zehaztu beharrekoa.

4. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.- Deialdi honetan aurreikusitako zuzkiduren helburua izango da bi ikasturteko proiektu bat egitea laguntza eskatzen duen ikastetxean ezartzeko. Proiektu horretan, honako ildo hauetakoren bat edo gehiago landu beharko dira:

- a) Teknologia zein materialen eta baliabide digitalen erabilera ikasgelan, irakasteko eta ikasteko prozesuan.
- b) Irakasleak teknologia eta pedagogia aldetik prestatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan material eta baliabide digitalak erabil eta landu ditzaten.
- c) Material digitalak sortzea ikasgelan erabiltzeko.

2.- Diruz lagunduko dira proiektuko **lehen ikasturtean egindako gastuak**, 14. artikuluan ezarritako mugen barruan:

- Prestakuntza-jarduera ematearen kostua, baita hizlariaren ostatuaren, mantenuaren eta joan-etorrien gastuak, eta ikastetxeak koordinatzaile izendatzen duen pertsonaren edo pertsonen kostua ere.
- Lizentzien kostua eta tresna digitalak erabiltzeko behar diren material curricularrena.
- Proiektuetako esperimentazioan erabili behar diren dispositiboaren kostua, emandako diru laguntzaren %50ko mugarekin. Erositako material informatikoaren homologazioa egingo da, material honek homologatze- baldintzak betetzen baditu.

5. artikulua.- Hautapen-prozedura.

«Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan parte hartuko duten proiektuak hautatzeko, I. eranskinean eskaerak balioesteko ezarritako baremoa hartuko da kontuan. Baztertuta geratuko dira proiektuaren baremoaren 2. atalean gutxienez 9 puntu lortzen ez dituztenak.

Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: ESKABIDEAK BALORATZEKO BAREMOAREN (I. ERANSKINA) atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratzuz, hurrenkera hau kontuan hartuz. 4., 5., 2., 3. eta 1. atala.

2.- Parte hartzeko hautatzen diren proiektuen artean banatuko da deialdi honetako zuzkidura ekonomikoa, proiektuan lortzen duen puntuazioaren arabera.

3.- Gehienez ere 5.000 euro emango dira ikastetxeko. Nolanahi ere, erakunde onuradunen kopuruagatik ez bada aurreikusitako zenbatekoa agortzen, esleitu gabeko zenbatekoa beste



guztien artean banatu ahal izango da, deialdi honetan aurreikusitako irizpideen arabera, betiere proiektuaren kostua gainditzen ez bada.

4.- Hautatutako ikastetxeei lanaldi erdiko ordu-kreditua esleituko zaie proiektuaren bi ikasturteetan teknologia-heldutasunaren ereduko aurrerapen-mailaren koordinazio-, prestakuntza- eta jarraipen-lanak egiteko eta material digitalak egiten laguntzeko. Laburbilduz, ikasleen, irakasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren banako eta taldeko kompetentzia digitala sustatzeko.

6. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez (eskabide-orrian bertan azaltzen da), betebeharrak egiaztatuko dira:

- a) Badituela beharrezko azpiegiturak, ekipamendua eta irakasleak proiektua beren gain hartzeko, eta, horrez gain, ziurtatu egiten duela azpiegitura berria jarri gabe bi ikasturtez ohiko jarduerari eutsiko diola.
- b) Ikastetxeak adierazi beharko ditu eskabidea eta helburu bererako bestelako diru-laguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako baliabiderik edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik jaso duen.
- c) Ikastetxeak adierazi beharko du eskabide-orriko eta berarekin batera aurkeztutako agiritako datuak egiazkoak direla, eta egiaztatu beharko du laguntza horien onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- d) Ikastetxeak adierazi beharko du ikastetxeko zuzendaritza-organoak proiektua ezagutzen eta onartzen duela.

7. artikulua.- Ziurtatzea.

Proiektuan parte hartzen duten irakasle guztiek proiektua garatu eta burutzeko jarritako orduen % 80 gainditzen badute, 30 orduko ziurtagiri bana egingo zaie ofizioz (nori bere ziurtagiria egingo zaio eta proiektua garatzen den ikasturte bakoitzean), betiere proiektu horren egikaritze-memoriak balorazio positiboa lortzen badu. Hala ere, ikastetxe batek proiektuen deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez ikasturte berean, irakasle berari ez zaio inoiz 90 ordu baino gehiagoko ziurtagiririk emango Hezkuntza Berriztatze Prestakuntza Proiektuen ordainean.

8. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea hasiko da agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2019ko martxoaren 28an amaituko da.

2.- Eskabidea modu elektronikoan aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak, datu teknikoak eta aurrekontuari buruzkoak ere, behar den moduan beteta. Horretarako, ikastetxe publikoentzako ataria erabiliko da: «Herri-ikastetxeak/Deialdiak» (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>). Eskabide-eredua aipatutako atarian egongo da erabilgarri.

3.- Eskabideak ez badira behar bezala bete, eskabidea egin duen ikastetxeari eskatuko zaio hamar eguneko epean bete gabe utzitakoa betetzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela ohartaraziko zaio.

4.- Eskerak «Sare_Hezkuntza Gelan» ekimenean parte hartzeko proiektuarekin batera aurkeztuko dira. Proiektu hori II. eranskineko ereduaren arabera izango da eta atal hauek izango ditu:

- a) Inplikazioa eta presentzia ikastetxearen hezkuntza-proiektuan.
- b) Ikasketa digitaleko metodologiak, ikastetxearen, gelaren eta ikasleen eskalan.
- c) Irakasleen trebakuntza teknologikorako zein pedagogikorako jardueren planifikazioa.
- d) Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena.
- e) Ikasketa digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak.
- f) Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak.
- g) Hezkuntza-komunitatean planaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak.
- h) Proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena.
- i) «Sare_Hezkuntza Gelan» esperientzian parte hartzearen ondorioz ikasitakoa hedatzeko eta hezkuntza-alorreko beste eragile batzuk edo ikastetxe batzuk trebatzeko aurreikuspena.
- j) Aurkeztutako aurrekontuaren justifikazioa eta banakapena.
- k) Dispositiboak erosteko justifikazioa

9. artikulua.- Organo kudeatzailea.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura kudeatzea.

10. artikulua.- Hautaketa Batzordea.

1.- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria buru den edo hark izendatzen duen pertsona buru den batzorde batek aztertuko eta ebaluatuko ditu aurkeztutako proposamenak; batzorde horretan, gainera, honako hauek hartuko dute parte:

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako zerbitzuburu batek. Zuzendariak izendatuko du.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako hiru lurraldeburuek.
- Berritzegune Nagusiko aholkulari batek. Berritzeguneko zuzendariak izendatuko du.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Teknikari bat. Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuko du, eta idazkari-lanak egingo ditu.

2.- Batzorde horrek eskumena izango du proiektuak modu egokian balioesteko beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak eskatzeko.

3.- Batzordeak dagozkion proposamenak igorriko dizkio Hezkuntzako sailburuordeari.



11. artikulua.- Laguntzen bateraezintasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateraezinak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk 1. artikuluan adierazitako helburu bererako eman dezakeen beste edozein diru-laguntzarekin.

12. artikulua.- Ebazpena.

1.- Hezkuntza sailburuordeak, Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenak aztertu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, aurkeztutako proiektuak hautatuak izan diren ala ez zehaztuta, baita hautatutako proiektuek jasoko duten laguntzaren zenbatekoa ere. Ebazpen hori bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie eskabidea egin duten ikastetxeei.

2.- Ikastetxe interesdunek hamar eguneko epea izango dute, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Hezkuntzako sailburuordeak ebatziko ditu.

3.- Aurreko paragrafoan aditzera ematen den gehienezko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskabidea ukatu zaiela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua onorioetarako.

13. artikulua.- Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Deialdi honen babesean emandako diru-zuzkiduren onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hamar eguneko epean –deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera–, ikastetxe onuradunek berriaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.
- b) Proiektua ikastetxeko urteko planean sartzea.
- c) Diru-laguntza jaso den helburu zehatzerako erabiltzea; hau da, «Sare_Hezkuntza Gelan» deialdian jasotzen diren proiektua eta prestakuntza-jarduerak egiteko.
- d) Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin kolaboratzea onartutako proiektuarekin loturiko aholkularitza, ebaluazio, jarraipen eta kudeaketa lanetan.
- e) Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin eta EHUrekin lankidetzan aritzea, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetakoko praktiketako irakasleak onartuz, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra ikasten diharduten praktiketako ikasleak ere, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezen laguntze aldera.
- f) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari organo horiek ikastetxeei eskatzen dieten informazioa ematea, deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruzkoa, hain zuzen.
- g) Proiektua gauzatu izana justifikatzeko agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztea.
- h) Euskal Hezkuntza-sistemaren barruan, proiektuaren bi ikasturteetan sortutako material guztiak Hezkuntza Sailaren web semantikaren bitartez eskuragarri izango dira.

14. artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.- Bi ordainketa-aginduren bidez ordainduko zaizkie ikastetxe onuradunei diru-laguntzak:

- a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 67; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi, eta, gehienez, bi hileko epean ordainduko da.
- b) Bigarrenean, gainerako % 33a, hurrengo atalean adierazitako justifikazio-dokumentazioa dagokion epean jaso ondoren. Dokumentazioa aplikazio informatiko honetan aurkeztuko da: «Herri-ikastetxeak/Deialdiak».

2.- Ikastetxe onuradunek 2020ko ekainaren 15era (proiektuaren lehendabiziko ikasturtea) arteko epea dute aurkezteko justifikatuko duen memoria ekonomikoa (IV. Eranskina) proiektuaren gauzatzeari buruzkoa, non zehaztuko diren onartutako proiektuari egoztekoak diren gastuak, eta zer fakturatan (erreferentzia) ageri diren gastu horiek.

3.- Jarduera emateari egotzitako gastu gisara zenbatu ahalko dira honako hauek: batetik, prestakuntza-jardueraren kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera (gehienez ere 90 euroko muga prestakuntza-orduko); bestetik, ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriek, ostatu hartzeak eta otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza-erakundeaz kanpokoa denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorriek eta otorduek eragindako gastuak.

Informazio- eta komunikazio- teknologien erabileraren eremuko jarduera berritzaileak aurrera eramateko material edo tresna espezifikoak behar dira. Esperimentazio pedagogikoak tresna hauek behar ditu, bere erabileraren efikazia egiaztatzeko. Horregatik, diru-laguntzaren zati bat (gehienez %50) beharrezko material hauek (tresnak, dispositiboak...) erosteko aukera sartzen da, proiektuarekin bat badatoz.

4.- Programaren iraupena bi ikasturtekoa den arren, gastu guztiak artikuluko honetako 2. atalean ezarritako epean aurkeztu behar den dokumentazioan justifikatu beharko dira.

5.- Ikastetxe onuradunek 2021ko ekainaren 15era (proiektuaren bigarren ikasturtea) arteko epea dute aurkezteko proiektuaren garapenari, betearazpenari eta ebaluazioari buruzko txostena (III. Eranskina), behar den moduan beteta herri ikastetxea/deialdiak atariaren bitartez <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>. MEMORIA dokumentua behar adinako aurrerapenez ataria horretan argitaratuko da.

15. artikulua.- Ikastetxeak hautatzeko baldintzak aldatzea.

Ikastetxeak hautatzeko eta diru-laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, aldaketa horien berri eman beharko zaie ikastetxeei, eta horrek diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake. Proiektuari egoztekoak diren justifikatutako gastuek emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen ez badute, zuzkidura ekonomiko hori murrizteko ebazpena emango da, eta, hala dagokionean, sobera emandako zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaio ikastetxe onuradunari.



16. artikulua.- Ez-betetzeen araubidea.

Ikastetxe onuradunak itzuli egin beharko du emandako eta jasotako diru-laguntza, baita aplikatzekoak liratekeen interesak ere, baldin eta honako egoeraren bat gertatu dela egiaztatzen bada:

- a) Ez duela diru-laguntza erabili eskatu zuen eta eman zitzaion helburu zehatzerako.
- b) Ez duela egin diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera.
- c) Ez duela egiaztatu adierazi zituen helburuetarako erabili duenik diru-laguntza.
- d) Ez dituela betetzen, oro har, deialdian edo diru-laguntza emateko ebazpenean xedatutako betebeharrak.

17. artikulua.- Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, *Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak* izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 4ean

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

MIREN MAITE ALONSO ARANA

I. ERANSKINA: ESKAERAK BALORATZEKO BAREMOA

<p>1. Heldutasun teknologikoaren ereduaren definitutako taldeko konpetentzia digitalaren maila, 147/2012 Dekretuaren arabera eta 2017ko Urriaren 16 ko agindua, irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duena.</p>	<p>Gehienekoa: 50 puntu</p>
<p>2014 ikasturtetik aurrera lortutako azken maila.</p> <ul style="list-style-type: none"> - HTEko maila aurreratua (50 puntu) - HTEko tarteko maila (30 puntu) - HTEko oinarrizko maila (10 puntu) 	
<p>2. Proiektuaren edukia</p>	<p>Gehienekoa: 18 puntu</p>
<p>2.1 Ikastetxearen heziketa-proiektuan duen inplikazioa eta presentzia.</p>	<p>4 puntura arte</p>
<p>2.2 Hezkuntza digitalaren metodologiak, ikastetxe-, ikasgela- eta ikasle-mailan.</p>	<p>6 puntura arte</p>
<p>2.3 Irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikorako jardueren plangintza.</p>	<p>3 puntura arte</p>
<p>2.4 Zehaztapena, koordinaziorako prozeduraren garapena, proiektuaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa.</p>	<p>3 puntura arte</p>
<p>2.5 Lehendik izandako esperientzia berritzaileak, hezkuntza digitalaren proiektuetan.</p>	<p>2 puntura arte</p>
<p>3. Konpromisoa eta proiektuaren inpaktua</p>	<p>Gehienekoa: 12 puntu</p>
<p>3.1 Hezkuntza-taldeak edo ildoak, emandako ikasgaiak eta proiektuan parte hartuko duten irakasleak.</p>	<p>2 puntura arte</p>
<p>3.2 Hezkuntza-komunitatean proiektua zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak.</p>	<p>2 puntura arte</p>
<p>3.3 Parte hartzeko proiektuaren edukiak beste talde edo irakasle batzuei transferitzeko aurreikuspena.</p>	<p>2 puntura arte</p>
<p>3.4 Beste eragile batzuei edo ikastetxeei esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena.</p>	<p>2 puntura arte</p>
<p>3.5 Proiektua partekatzen duten ibilbide berdineko lehen edo/eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak</p>	<p>Gehienekoa : 4 puntu BAI: 4 puntu Ez: 0 puntu</p>
<p>4. Ikastetxe eskatzaileen ikasle bekadunen ehunekoaren arabera, proportzio zehatzean, azken urteko datuen arabera. Hamaika Esku Programan parte hartzen duten ikastetxeek gehieneko 20 puntuak jasoko dituzte.</p>	<p>20 puntura arte</p>
<p style="text-align: right;">Puntuak, guztira:</p>	<p>100 puntu</p>



II. ERANSKINA: PROIEKTUAREN EREDUA

- Proiektuaren edukia (gehienez 5 orrialde).
 1. Inplikazioa eta presentzia ikastetxearen hezkuntza-proiektuan.
 2. Ikasketa digitaleko metodologiak, ikastetxearen, gelaren eta ikasleen eskalan.
 3. Irakasleen trebakuntza teknologikorako zein pedagogikorako jardueren planifikazioa.
 4. Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena.
 5. Ikasketa digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak.

- Konpromisoa eta proiektuaren eragina (gehienez 4 orrialde).
 1. Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak.
 2. Hezkuntza-komunitatean planaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak.
 3. Proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena.
 4. Beste eragile batzuei edo ikastetxeei esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena.
 5. Ibilbide berdineko ikastetxeen arteko proiektuaren koordinazioa

III ERANSKINA: MEMORIA

HERRI IKASTETXEA ATARIAN BEHAR ADINAKO AURRERAPENEZ ARGITARATUKO DA.



V. ERANSKINA (PROIEKTUAREN 1. IKASTURTEA BAKARRIK)

JUSTIFIKAZIO-KONTUA

GASTU-EGIAZTAGIRIEN BALANTZEA

BEHIN BETIKO BALANTZE EKONOMIKOA

1.- Gastu-egiaztagirien zerrenda

PRESTAKUNTZA-JARDUERA EMATEAREN KOSTUA							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Guztizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
1....							
PRESTAKUNTZA-JARDUERA EMATEAREN KOSTUA, GUZTIRA							

LIZENTZIEN KOSTUA ETA TRESNA DIGITALAK ERABILTZEKO BEHAR DIREN MATERIAL CURRICULARREN GASTUAK							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Guztizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
LIZENTZIEN KOSTUA ETA TRESNA DIGITALAK ERABILTZEKO BEHAR DIREN MATERIAL CURRICULARREN GASTUAK, GUZTIRA							



GAILUEN EROSKETA							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Gutzizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
GAILUEN EROSKETA, GUZTIRA (emandako laguntzaren % 50, gehienez)							

Ohar argigarriak

Gastuen zerrenda sailkatua justifikatzerakoan, datu hauek eman beharko dira:

- Mota: egiaztagiria zer den zehaztu; faktura, nomina, TC1 edo TC2.
- Zenbakia: egiaztagiria faktura bat baldin bada, eman zaion zenbakia, eta, halakorik baldin badago, seriea.
- Data: fakturaren jaulkipen-data. Nomina baldin bada, zein hiletakoa den.
- Jaulkitzailea/hartzailea: fakturaren jaulkitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena. Nominen kasuan, enpleguaren izen-abizenak.
- Kontzeptua: fakturan agertzen den kontzeptua.
- Gutzizko zenbatekoa: fakturaren edo nominaren gutzizko zenbatekoa zehaztu.
- Egotzitako zenbatekoa: gutzizko zenbateko horretatik, zehaztu zer zenbateko egotzen zaion dagokion kontzeptuari.
- Gutzizkoa: faktura eta nomina bidez kontzeptu bakoitzerako justifikatutako guztiaren batura izango da gutzizko zenbatekoa.

2.- Proiektuaren behin betiko balantze ekonomikoa.

JUSTIFIKATUTAKO GASTUEN LABURPENA	
PRESTAKUNTZA-JARDUERA EMATEAREN KOSTUA	
LIZENTZIEN KOSTUA ETA TRESNA DIGITALAK ERABILTZEKO BEHAR DIREN MATERIAL CURRICULARREN GASTUAK	
Gailuen erosketak	
BEHIN BETIKO GASTUAK, GUZTIRA	